



EBAZPENA, 2006ko apirilaren 24koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariarena, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Hezkuntza Bereziko, Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, bai eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetan zereginak ikasteko ikasgeletan ere, lanpostuak hornitzeko deialdien destinoen behin-behineko adjudikazioa argitaratzen duena.

Hainbat ikastetxe publikotan -Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Hezkuntza Berezia, Helduen Hezkuntza Iraunkorra eta Irakaskuntza Ertainetako zereginak ikasteko geletan- lanpostuak hornitzeko deialdiei dagozkien oinarri-arau orokorretariko hogeita zortzigarrenean xedatutakoarekin (2005eko azaroaren 21eko Agindua, abenduaren 2ko EHAAan argitaratua) bat etorritz, eta lehiaketariei puntuazio behin betiko emanik, honakoa

Horregatik guztiarengatik,

ERABAKI DUT:

Lehena.- 2005eko azaroaren 21eko Aginduaren bidez iragarritako lanpostuak hornitzeko deialdietan lortutako destinoen behin-behineko adjudikazioa argitaratzea. Adjudikazio hori Ebaspen honen eranskinean dago.

Bigarrena.- Interesatuak erreklamazioak edo borondatez parte hartu dutenek emandako destinoei uko egiteko aukera izango dute Langileriaren Kudeaketa zuzendariari bidalitako idazkiaren bidez, maiatzaren 3tik 8ra, bi egun horiek barne.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko apirilaren 24an.

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

ITZIAR GARAIZAR AGIRRE